

Mugimendu feministak politika instituzionalaren aurrean

1-Sarrera:

Batek pentsa dezake ponentzia hau idazteko orduan buruan darabilkigun ideia emakumeon parte hartze soziopolitikoaren inguruko gogoeta orokor bat egitea dela, egitura instituzionala zein aurrekontuak onartzerakoan, ekimen legegile eta abarretan emakumeok dugun parte hartzearen inguruko datuak bildu eta azterketa bat egitea dela.

Baina ponentzia honek ez du xede emakumeon parte hartze soziopolitikoaren inguruko hausnarketa teorikorik egitea. Asmo askoz xumeagoa dauka: Euskal Herrian egun dugun egoera soziopolitiko eta administratiboa kontutan izanik, emakumeok eta mugimendu feministak izan behar dugun parte hartze soziopolitikoaren nondik norakoak marraztea edota gutxienez honen inguruko eztabaida plazaratzea, hain zuzen ere. Hau da, gure asmoa egun ditugun herri-erakunde eta egitasmo politiko-administratiboetan gure esku hartzea zein izaten ari den aztertu, instituzioen dinamikak emakumeengan izan duen eragina ikusi, gabeziak eta erronkak zerrendatu eta gure parte hartzea eraginkorra eta baliagarria izan dadin baldintzak ezartzea da, beti ere errealitate zehatzetik abiatuta.

Eta hausnarketa hau Bilgune Feministaren baitan bai, baina mugimendu feministarekin konpartitu nahi dugu, denon artean eztabaidatu eta gure jarduna elkartua izanik berau eraginkorragoa izango denaren kontzientziaz. Bilgune Feministan argi dugu estrategia feminista orok instituzioei begirako lana bere baitan hartu behar duela, hau da, instituzioetan parte hartzearen aldekoak gara, mugimendu feministaren izaera politikoa aldarrikatzen dugulako eta emakumeen eskubideon aldeko borrokarako jarduera instituzionala funtsezkotzat jotzen dugulako.

Halere, ezin dugu albo batetara utzi emakumeon partehartze soziopolitikoak aukera berdintasun faltan ematen dela. Areago, emakumeok lortutako hainbat espazioen galtzea izan da azken urteotako tendentzia. Eta mugimendu feministak jarduera soziopolitikoaren eremuan eragiteko daukan gaitasuna murriztua ikusi du sare instituzionalak asimilatu baitu hein handi batean bai maila diskurtsiboan baita indarren kudeaketari dagokionez ere. Hau da, mugimendu feminista, instituzioei begirako bere jarduera eraldatzailea izan beharrean, maiz hauen gabeziak estaltzeko edota instituzioen aurpegiak zuritzeko erabilia izan da. Eta mugimendu feministak ez du behar adinako indarrik erakutsi honi buelta emateko.

Ponentzia honen xedea, beraz, politika instituzionalak eta instituzioak emakumeon zerbitzura nola jarri eta gure partehartzea finkatzea da, mugimendu feministarena eta emakumeona. Horretarako bi helburu nagusi aurreikusten ditugu:

Batetik, emakumeon aktibazioa bilatzea, parte hartze soziopolitikorako neurriak proposatzen ditugun heinean, emakumeen artean motibazioa sortuz.

Bestetik, mugimendu feministaren aliantza sortzea jarduera soziopolitiko bateratua aurrera eramateko.

Azkenik, ezin aipatu gabe utzi, egun Euskal Herrian bizi diren emakume askok bere eskubide zibil eta politikoak erabat ukaturik dituztela, alde batetik emakume etorkinak ditugu inolako eskubiderik ez dituztenak. Bestetik Euskal Herriak bizi duen gatazka politikoaren eraginez, herri honetan hainbat herritarrek eta beraz emakumek euren eskubide zibil eta politikoak erabat ukatuak dituztela Alderdien Legea dela medio, ezin baitute euren partehartze soziopolitiko ez modu kolektiboan (alderdi berriak sortuz, manifestazioetan aldarriak eginez...) ezta indibidualean ere (errepresentazio aukera eta bozkatzeko eskubidearen mugaketa erabatekoa) garatu.

Zentzu honetan, Euskal Herriko mugimendu feministak badu zeresanik, emakume horien ahotsak entzunaraz daitezten lege antidemokratikoen aurka azalduz, egun dauden egitura instituzionaletan euren ahotsak eta bozkak iritsi araziz eta areago, herri honek pairatzen duen gatazkaren konponketan subjektu politiko aktibo izaera hartuz. Partehartze soziopolitiko denon eskuragarri izan behar delako.

2-Marko teorikoa:

Emakumeen parte hartze soziopolitiko zein den eta zein izan beharko lukeenaren inguruko edozein hausnarketak partehartzea ahalbidetzen duten sistema politikoei buruzko hausnarketa egitera garamatza ezinbestean. Jendartearen partehartzearen paradigmatzat demokrazia goratu izan da, partehartzearen kontzeptua demokraziaren ereduari hertsiki lotuta joan dela baieztatu dezakegularik.

Halere, egun ezagutzen dugun demokrazia ez zuzena, ez ohikoa, ezarria eta maiz interesatua izan ohi dela gauza jakina da. Hala, gizartearen partehartze mekanismoak ordezkapen sistema bidez, hautes zerrenda hertsien bidez, aldizka baldintzarik gabe eman ohi dugun txartel zuriaren gisara irudikatzen ditugu. Demokrazia formala deritzon hertsian herritarren partehartze mekanismoentzat lekurik ez dago ia.

Ikusi besterik ez dago nola erreferendumaren bidea ez den ia erabiltzen, ezta kasu garrantzitsuetan ere, nola herri kontsultek maiz presioa jasaten duten (gogoratu AHT-ren ingurukoak bestela), aurrekontuak hautatzeko prozesua alderdien artean soilik nola ematen den, herrietan erabaki guneetan parte hartzeko mekanismorik ez dagoen... Gai garrantzitsuenen inguruko iritzi bilketa teknikarien eskuetan uzten da askotan herritarrek

aholkularitza lana ere ezin dugularik egin. Zer esanik ez ebaluazio mekanismoei buruz, hauek egitea herritarrentzat betatua egonik.

Demokrazia formalak jendearen partehartzea bermatzen ez badu, zer esan dezakegu emakumeon partehartzeaz! Emakumeok zapalkuntza espezifikoa jasaten dugu, demokrazia sistema formalak herritar guztiengan duenaz bereizia.

Emakumea egungo sistema patriarkalean erabat zanpatua aurkitzen da, bigarren mailako herritarra izanik, oraindik orain eremu publikoaren atea ia itxita duela. Emakumeon zapalkuntzak emakumeon bizitzako arlo guztietan eragiten du, zapalkuntza estrukturala baita, ez koiuntura edota esparru zehatz batzuetan eragiten duena, sistema patriarkala eremu ekonomiko, politiko eta ideologikoan garatzen baita.

Honela, emakumeak ez gaude botere gune ekonomikoetan, egungo sistema ekonomikoak sexuen arteko lan banaketan oinarritu behar baitu bizirauteko eta hor guri dagokigun papera eskasa baita, eremu pribatuaren sostengua oraindik orain. Botere gune politikoetatik ere at gaude. Gehienez kontseiluren batzuk emateko, tarteka gutaz biktima soilak bagina lez hitz egiteko edota emakume zehatz batzuen bitartez gure buruak ordeztuak aurkitzera kondenatuak gaude. Emakumeok kategoria homogeneo bat bagina bezala!

Eta guzti hori berdintasunaren barniz ideologikoarekin jantzita datorkigu gainera. Geroz eta emakume gehiago dago botere guneetan eta demokrazia formalak emakumeon parte hartzea kuoten mekanismora bideratu du, organo batean gizon eta emakume kopuru bera egoteak zapalkuntza estrukturala irauli ahal izango balu bezala!

Bitartean emakumeon parte hartzea bermatzeko beharrezkoak liratekeen mekanismoak ez dira martxan jartzen. Ez dira emakumearen ahotsa entzuteko espazio iraunkor eta eraginkorrak irekitzen, esperientzia errealak batzen, emakume horiei bozka eskubidea aitortzen, programak diseinatzeko eskatzen, gabezien detekzio lana eginarazten, aldaketa juridiko, politiko nahiz ekonomikoak, or-har politika publikoak eraldatzeko ahalmena delegatzen...

Izan ere, guzti hori egiteko, egun emakumeok ditugun oztopo eta zailtasunekin bukatu beharko litzateke eta hori kuotak finkatzea baino askoz zailagoa da. Emakumea eskubideen eta betebeharren subjektu errekonozitua izan behar da, besteen tamainako herritarra eta parekidetasun hori edukiez betetzeak neurriak hartzea exijitzen du.

Baina ez da bakarrik emakume gehienon parte hartze politikoa oztopatzen. Mugimendu feminista ere ez da eragile politiko gisa errekonozitua izan. Ez zaio gai zehatzetan ezik ahotsik eman, ez zaio ezer erabakitzen utzi, ezta lehentasunak markatzen ere. Hainbat herrialdetan lobby funtzioa betetzen badu ere hemen ezin esan horrelakorik duenik.

Eta mugimendu feministak or-har eta emakume taldeek zehazki ekarpen politiko handiak egin ditzakete eta egin behar lituzkete, herri zein beste lurralde eremutako politika eta legeak ikuspegi feministaz txertatzeko. Emakumeon beharrak eta hauen lehentasunak azpimarratzeko edozein aurrera pausu kontzientzuz egin behar dugu. Beste inork egun bete ezin dezakeen emakume partikularren bozgorailu izan behar gara. Aurrekoa kontutan izanik alderdi politiko eta entitate administratibo-politikoetan akuilu lana burutu behar dugu.

Azken finean emakumeon bizitzetan eragiten duten erabaki guneetan parte hartzea ezinbestekoa egiten duten neurri guztiak beharrezkoak dira despotismo ilustratuaren gisara "todo para las mujeres pero sin las mujeres" izan ez dadin ze horrek "el todo" ezerezean uzten baitu.

Emakumeon parte hartzea nolakoa izan behar den definitu behar dugu, elementu ezberdinetan oinarritu behar gara. Jendartearen antolaketari begira demokrazia parte hartzailearen oinarriak ardatza izan behar dira. Eta demokrazia parte hartzailean emakume eta gizonak balio berdina dugun kideak gara, parekidetasunaren printzipioan oinarrituz.

Honenbestez, emakumeak lehen mailako herritarrak izan behar gara eta herri honen garapen soziopolitiko, ekonomiko eta kulturean gure eragina, jarduera, eraldaketa gaitasuna, ahotsa izateko eskubidea, bozka... aintzakotzat hartuak izan behar dira. Proposamenetan zein erabakietan herritar guztiok izan behar dugu parte hartzeko aukera eta horretarako herritarren partehartzea sustatuko duen eredu sinisten dugu. Horrek emakumeon partehartzea eremu eta prozesu guztietan eman dadin baldintza egokiak sortzea suposatzen du.

Emakumeon partehartzea bermatzeko halaber, ezinbestekoa da emakumeon ahots kualifikatua entzutea, hau da, ezinbestekoa da emakumeon beharrak eta helburuak etengabe borrokatzen diharduen mugimendu feministari izaera politikoa aitortzea eta subjektu politiko gisa tratatzea.

3-Egoeraren hutsune eta zertzelada batzuk:

Emakumeen parte hartzea aztertzerakoan bi ataletan banatu dugu, lehengoan analisi orokor baterako ideiak zerrendatzea izan da gure helburua eta bigarrean egun dauden berdintasun politiken inguruko elementuak aztertzea, orain dela bi urte bilgune feministak egindako hausnarketan oinarrituz.

A) Hausnarketa orokorra:

Hasteko itxurazko berdintasunaren aroan erabat sartuta gaude. Diskurtso ofizialak orain arteko

garaipenak goraiatu eta dena lortuta dagoenaren irudia eman nahi digute. Berdintasunaren garaian bizi garela sinestarazi digutenean parte hartzea aukera berdintasunean ematen dela ere esan digute. Baina orokorrean aztertu beharko genuke emakumeen parte hartzea nolako den. Gatazkaren konponbidean emakumeen parte hartzeari begirako hausnarketa egin genuenean argi geratu zen inongo esparrutan ez dela gure parte hartzea egoera berdinean ematen. Ez ditugu datu zehatzak eragileen artean dagoen parte hartzea aztertzeko baina argi dago diskurtso ofiziala interesatua eta iruzurgilea dela.

Badirudi, beraz, gure eskubideak bermatuta ditugula eta hobekuntza partzialak baino ez direla falta edota bortxakeria bezalako arazo larriak "ero" batzuen gauza isolatua direla. Instituzioen politikak azterketa horri erantzuten diote neurri partzial eta indibidualetan arreta jarriaz, errotik eraldaketa bilatuko luketen proposamen ausartak plazaratu beharrean.

Neurri partzialen artean hor dugu ahaztu ezin duguna, kuotena, alegia. Emakumeon partehartzea kuotetan finkatuz emakume batzuek hainbat erabaki organotan parte hartzea bermatzen badute ere, horrek ez du bere kabuz emakumeon parte hartze soziopolitiko egungo mugetatik aterako. Hobe kuotak ezer baino, baina hobe emakumeon parte hartze soziopolitiko sustatzeko neurri orokorragoak emakume konkretuen parte hartzea bermatzeko kuotak baino.

Azken urteetan, sistemak bere egin ditu jendartearen eraldatzeko egondako errebindikazio ezberdinak, feminismoa tartean. Egondako zenbait borroken asimilazioa lortu du, diskurtso bera barneratu eta aipatutako neurri partzialak martxan jarriaz, era honetan ezkerren aldarrikapen zentzua kenduz. Ezkerrek ez du honen aurrean hausnarketarik egin ezta bide berriak eraiki. Mugimendu feminista ezkerren parte bezala asimilatua izan da ere hein batean. Berdintasunaren errebindikazioaren asimilazioa eman da boterearen eskutik. Momentu honetan denek hitz egiten dute berdintasunari buruz eta hizkuntza bera erabiliz gure erreindikazioak desaktibatzea eragin dute.

Mugimendu feministaren lanaren ondorioz, beraz, emakumeok sufritzen dugun zapalkuntzari aurre egiteko instituzioen ardura politikoa kokatu da. Emakumeon egoera aldatzeko guztiok zerbait egitearen mezu horretan instituzioek beraien papera asimilatu badute ere, politikoki zuzena delako izan da, ez benetako konpromisoak hartu direlako.

Azken hilabeteetan, halere, eta abortuarekin dagoen afera ikusirik, adibidez, azken hamarkadetan lortutako espazio batzuen kuestionamendua dago geroz eta argiago dago: Sistema patriarkalaren ofentsiba berria dugu eta eskuinak balore tradizionalen goraiatzea ekarri du berriro.

Hauek dira, finean egungo egoeraren hiru zertzelada nagusiak; lehenengoa, sistema feminismoaren diskurtsoa bere egin eta berdintasunen politiken diseinuarekin mugimendu

feminista asimilatzen joan da.

Bigarrena Mugimendu feministak politika instituzionala bide egokia zela adostu bazuen ere bide bakarra izatea utzi du, bere kaleko dinamika alde batera utzi duelako eta instituzioetan egin beharrekoan zentratu da.

Azkenik, Mugimendu feminista subjektu politikoa bezala ez dagoela bere momenturik hoberenean esan daiteke, orokorrean herri mugimenduan dagoen krisia begi-bistakoa da. Feminismo instituzionalak dinamika feministaren zentralidade osoa hartu du eta bestelako lan feminista bigarren planora pasatu da.

B)Politika instituzionalak: Berdintasun Politikak eta Emakumeen kontseiluak

Instituzioen diskurtso mailako jarrera argi izanik ezin dezakegu askorik espero aurrera eraman diren politika instituzionaletan. Aldaketarako borondate gutxi adierazi dute, konpromiso falta erakutsiz. Konpromiso falta hori arlo ezberdinetan nabaritu da: instituzioek orokorrean ardura euren gain hartu beharrean, elkarteak edota teknikariak jarri dituzte erantzule, “espezialistak”, alegia. Berdintasun politiketarako aurrekontuak ez dira ezer serioa, etab.

Politika instituzionalaren inguruan ari garenean berdintasun politiken azterketa egitea ezinbestekoa da. Berdintasun politikak , hau da, berdintasun planak diskriminazio egoerei aurre egiteko helburua dutela esan daiteke. Plana gauzatzen joan ahalaz bat egoera aldatzen joan beharko litzateke. Beraz, plan eraginkorrak egiteko emakumeen egoeraren diagnostiko batetik abiatzea ezinbestekoa da, eta diagnostiko honen aldaketak eta errebisioak aldian aldian egitea, planak aldatzearekin batera.

Egun, aldiz, egoera oso bestelakoa da. Planak ez dira diagnostiko erreal batetik abiatzen eta ondorioz, egoera larrienei erantzuteko gai ez diren plan orokorregien aurrean aurkitzen gara.

Emakumeak dira inor baino hobeto euren egoera ezagutzen dutenak eta ondorioz, emakumeen partehartzea bermatzen ez duen diagnostiko batek ez du osoa eta erreala izateko bokaziorik. Partehartzea ez da bakarrik lehen fasean kokatu behar, ekimenak planteatzerako orduan ere partehartzea ziurtatu behar da. Diagnostikoarekin gertatzen den lez, teknikariak dira edota enpresa pribatuak akzioak planteatzen dituztenak.

Ebaluazio lana ezinbestekoa da planaren helburuak betetzen eta akzioak gauzatzen ari diren ikusteko eta aldaketaren beharrak detektatzeko. Baina kasu honetan ere, ebaluazio mekanismoen gabeziarekin aurkitzen gara.

Planek duten beste arazoetako bat orokorrean denbora mugatu baterako akzioak proposatzen dituztela da. Planaren garapenean zehar egin beharreko kontzientziario lanaren planifikazioa faltan botatzen da.

Planak administrazioari begira egin ohi dira, eremu pribatua kanpo utziz. Behartze mekanismoen gabezia ere azpimarragarria da, emakumeen baldintzak hobetzeaz gain, txarrera joan ez daitezen ziurtatzeko.

Aurrekontuak dira beste arazoetako bat. Ez dago plan bat aurrera ateratzeak suposatuko lukeen kostuaren inguruko aurrekonturik. Aurrekontua, udaletan adibidez, emakumearen arloari dagokion aurrekontuaren zati bat izan ohi da.

Guzti honi planaren garapena, unean dagoen alderdi politikoaren esku geratzen dela gehitzen badiogu, legegintzaldiaren arabera planaren garapenak jasan ditzakeen gorabeherak aurreikusi ditzakegu.

Emakumeen parte hartzeari buruz ari garenean espezifikoki emakume kontseiluak suposatzen dutenaren inguruan arituko gara eta mugimendu feministaren izaeran nola inziditu duen aztertuko dugu baina orokorrean kokapen zabalagoa egin nahi dugu.

Emakumeak subjektu bezala duten papera aztertzen badugu adierazgarria da ere orain martxan dauden kuoten sistema, egia da emakumeak botere gunetan sartzeko aukera izan dugula baina oraindik ere erabaki nagusiak gizonen hartzen dituzte. Kuoten sistema k onurak suposatu baditu ere emakume askok bere boterea mugatuta daukate azkenean gizonen menpe dagoelako.

Parte hartzeari begira azterketa egiterakoan Emakume Kontseiluen diseinua aztertu behar dugu, gure ustez arazo nagusia parte hartze faltua da, izan ere marko hauek ez dute inolako eraginik politika instituzionalean, ez dira lotesleak, mugimendu feministaren jardura kontrolatu eta asimilazioa bilatzen dute gehienetan. Arazo nagusienetako bat emakumeen partehartze eza da. Elkarre gisa erregistratuta egotea galdatzen da kasu askotan eta ondorioz talde pila bat kanpo gelditzen dira. Partehartze modua estatutuetan jasotzen da eta beraz, garrantzitsua da estatutuak egiterakoan parte hartzea, gai honekiko malgutasuna jasota gera dadin. Erabakiak hartzeko modua ere estatutuetan jasotzen da.

Bestetik, kontrako efekturik ere eragin du, Mugimendu feministaren markoen ordezkatea eman da maiz.

Azkenik Kontseiluaren izaera normalean kontsultiboa da, baina badira kasuak non hainbat gaietan Kontseiluari herri erakundea behartzeko ahalmena ematen zaion. Talde politikoen partehartzeari dagokionez, batzuetan hauen partehartzea jasotzen da eta beste batzuetan ez.

Hauek dira kontseiluaren inguruan aipatu dezakegun hutsune nagusiak. Herri ezberdinetan emakumeen kontseiluak sortu egin direnean honelako oztupoekin aurkitu egin gara baina adibide batzuk ere baditugu non emakume kontseiluak modu parte hartzaileago batean ezaugarritu dituzten.

4-Aurrera begira zer:

Emakumeon egoeraren aldaketa jendartearen eraldaketatik etorriko da. Sistema patriarkalarekin gainditzeko Euskal Herri berri bat eraiki beharko dugu eta horretarako Emakumeon eskubideen aldeko borroka sustatu beharko dugu.

Parte hartze sozio politikoan zentratuz nolakoa izan beharko lukeen ezaugarritzen ahalegindu gara. Ez bakarrik instituzioak ematen diguten parte hartzeari begirako baizik eta orokorrean jendartearen esparru guztietan emakumea subjektu politiko aktiboa izateko baldintzak.

Lehenengo eta behin emakumeak subjektuak kontsideratuak izan behar gara, subjektu politikoa, horretarako gure parte hartze politikoa eta soziala baloratua izan behar da.

Parte hartzea aukera berdintasunean emateko emakumeoi egotzi zaizkigun funtzioak ikusirik, emakumeok bizi proiektu propioa garatzeko aukera eduki behar dugu. Erabakiak hartzeko eskubide guztia izanik eta inolako baldintzarik gabe. Gaur egun bateragarritasun deitzen den horri begirako definizio berri bat garatu beharko dugu. Definizio berri horretan emakumeok bateragarri egin dezakegu gure bizi proiektu guztia, enplegua, militantzia, aisia eta astia edota gure bizitzaren edozein eremu. Ezin dugu bateragarritasuna amatasunarekin bakarrik lotu.

Parte hartze sozio politikoari buruz ari garenean, eredu maskulino baten inguruan ari gara. Beste motatako eredu sustatu beharko genuke. Asko eztabaidatu da honen inguruan, alderdietan dauden emakumeak zein nolako jarrera duten eta zein den ematen diguten erreferentzian arreta jartzen badugu, baieztapen honen zergatietara joan gaitzke.

Baldintza orokorrekin jarraituz kalitatea aipatu nahi dugu. Emakumeok eredu maskulino horretan integratzen garenean normalean ez dugu gure parte hartzea modu integratzean bermatuta, beti funtzio berdinak betetzen ditugularik edo gure intzidentzia mugatua izaten delarik. Kalitatezkoa izan behar du, balio berdina dugun kideak izanik gure lekua berdin baloratua izan behar du. Dinamika soziala aurrera eramateko eredu berriak sortu behar ditugu eta gaur egun daudenak apurtu.

Parte hartzeaz gain emakumeok sufritzen dugun zapalkuntza dinamika guztietan zeharka kokatua egon behar du, bestela parte hartzearekin bakarrik ez dugu sistemari aurre egiteko aukerarik.

Bukatzeke, mugimendu feministaren izaera politikoa aitortua izan behar da, edozein esparruan subjektu politikoak gara eta gure dinamikak eta diskurtsoaren dimentsioak errekonozituak izan behar dute.

Baldintza hauek parte hartze sozio politiko orokorrarekin lotuko ditugu baina ponentziaren helburua zein den ikusirik politika instituzionalean nolakoa izan behar duen definitzeko eta adosteko hausnarketa egin beharko dugu.

Berdintasun politiken eta emakumeak parte hartzeko sortu egin diren espazio instituzionalen aurrean gure jarrerak zein izan behar duen hausnarketa egiteko ordua da, orain arte emandako pausu guztiak kontutan izanik.

Mugimendu feministak bere dinamika instituzionala garatzerakoan bi lan estilo planteatu ditu eta orain ere baliagarriak direla uste dugu: elkarlana alde batetik eta interpelazioa bestetik. Elkarlanari buruz ari garenean politika instituzionalean parte hartzearen aldeko planteamendua egin nahi dugu, jakinda instituzioak ez datozela emakumeon eskubideak bermatzera eta jendartearen eraldaketa bultzatzera, beraz elkarlan mugatua izan behar du bestela arriskutsua izan daiteke eta oso argi izan behar dugu zeintzuk diren gure baldintzak.

Bestetik interpelazioa garatuko dugu. Instituzioen funtzioak zeintzuk diren aztertu ditugu eta egiten duten guztiaren analisisa egiten dugu. Hau kontutan izanik emakumeon bizi-baldintzak hobetzeko bitartekoak eskatu behar ditugu, barne mailan interpelatuz, baina oso garrantzitsua izango da kaleko dinamika errekuperatzea eta askotan egin dugun bezala instituzioetan eskaera zehatzak egin eta dinamika mobilizatzailaren bitartez instituzioek egiten duten politikan eragitea.

Instituzioen aurreko lana borroka esparru bezala identifikatu behar dugu, aipatu dugun bezala interpelazioa eta elkarlana eginez. Borroka esparru bakarra ez dela ere argitu beharra dago eta beste espazio batzuk errekuperatu beharko ditugu.

Instituzioen artean dagoen ezberdintasuna ere kontutan izan behar dugu eta bakoitzarekin zein den egin beharrekoa aztertu behar da. Udalak dira aukera gehien irekitzen dituzten instituzioak. Baina aurreko atalean esan den bezala instituzioen funtzioak eta jarrerak nolakoak diren ahaztu gabe, azkenean, maiz, gaur egun dagoena mantentzeko eta ziurtatzeko tresnak baitira.

Instituzioek sortzen dituzten espazioak ezin dira izan mugimendu feminista asimilatzeke espazioak, beraz gure interpelazio lana eta kritika lan iraunkorra izan behar du. Azkenik instituzioak diruaren truke herri mugimenduaren asimilazioa lortzen ari dira, beraz honen aurrean gure jarrerak tinkoa izan behar du. Ez dugu onartuko subentzioen truke gure dinamikak izaten duten izaera politikoarekin, kritikoarekin, bukatzea.

Bestetik, emakumeekin aliantza sustatu beharko dugu instituzioen aurrean eraman beharreko borroka artikulatzeko. Instituzioetan dauden emakumeekin harremanak sortu behar ditugu aipatutako lan estiloa aurrera eramateko, hauek gurekin ados egoteak aukera gehiago izatea suposatuko duelako. Alderdietan dauden emakumeekin ere aliantzak landu beharko ditugu. Halere harreman mota hauek ezin dute gure dinamikaren zentralitatea hartu, emakume feministekin garaturiko harremana lehenestea garrantzitsuagoa iruditzen zaigulako.

Hauek dira elementu eta baldintza batzuk mugimendu feministaren instituzioen aurreko jarrera politikoa definitzeko, seguru baten bat gehiago gehitu beharko zela baina eztabaida hasteko helburuarekin planteatu ditugu.

Emakume eta talde feministen parte hartzea politika instituzionalean emateko baldintza minimo batzutan oinarritu beharko litzake. Baldintza hauen zerrenda egiten saiatu gara jakinik minimo batzuk lortzeko zailtasun handiak izango ditugula instituzioen definizioa zen den ikusi ondoren eta beraien funtzioak aztertu ondoren. Baldintza hauek proposamen batzuk baino ez dira eta hausnarketa bat egiteko abiapuntu bezala kokatu nahi ditugu.

Mugimendu feministaren parte hartzeko baldintza minimoak honakoak izatea proposatu nahi dugu:

1. Parte hartzeko sortzen diren gunetan erabakitzeke ahalmena izatea. Gaur egun dauden kontseiluak definizioz kontsultiboak dira eta erabakitzeke ahalmena izateke egin beharreko bidea luzea izango da. Tarte horretan marko ezberdinetan emakumeak eta mugimendu feministak egiten duten hausnarketak eta proposamenak kontuan izateke konpromisoa hartuko dela ziurtatu behar dugu.
2. Parte hartzearen ezaugarriak finkoak izatea, orain zein alderdiren ardurapean dagoenaren arabera jarrera eta funtzionamendu erak aldatu daitezke, beraz definizioa egiten denean baldintza hau modu zehatz batean jasoko dela landu behar da.
3. Guneek gestiorako aukera eta errekursoak izan behar dituzte. Lehen esan bezala segun zeintzuk diren hasieratik onartu diren estatutuak egoera oso ezberdinekin aurkitu ahal gara. Adibide ezberdinak izan ditugu eta berdintasun teknikariak egonez gero

teknikariaren jarrera ere oso baldintzatua egon daiteke. Beraz gestiorako ahalmena eskatu beharreko baldintza garrantzitsua da.

4. Espazio fisiko bat egon behar du emakumeak elkartzeko, gure eskaerak egiteko eta gure lana aurrera eramateko politika instituzionalean gure parte hartzea ziurtatu nahi badute.
5. Mugimendu feministaren ordezeko ez izatea. Martxoak 8a adibidez mugimendu feministak antolatzen duen eguna da eta emakume kontseiluek ezin dituzte emakumeen espazio hauek ordezkatu eta mugimenduari itzal egin.
6. Bateragarritasun neurriak jarri beharko dira, emakumeok definitzen ditugunak.
7. Aurrekontua izan behar dute. Orain arte dagoen diru partida oso txikia dela esan dugu behin eta berriro eta berdintasun politikak aurrera eramateko arazoa askotan diru faltan dagoela. Bestetik aurrekontuan planteatzen direnean ez da modu parte hartzailean egiten, ez dute emakumeen ahotsa kontutan izaten. Gainera zeharka ere ez da genero perspektiba lantzen. Aurrekontu parte hartzaileak eta genero perspektiba lantzeko izan behar dituzten indikadoreak adostu beharko ditugu eta interpelazio lana egin.
8. Berdintasun politikak diseinatzeko aukera eta jarraipena egiteko aukera izan behar du, emakume mugimenduari eta mugimendu feministari ateak zabaldu zaizkie askotan begirale izatearen funtzioa bete behar dugulako. Emakumeen kontseiluak eta sortzen diren holako markoen funtzio nagusietako bat berdintasun politikan parte hartzea ahalbideratzea izan behar da. Instituzioan eragiteko aukera guztiak irekiak egon behar dira.

Baldintza batzuk aipatu ditugu eta hauetako askok lortzeko egin beharreko lana handia izango da. Honen aurrean oso proposamen zehatza egin nahi dugu. Mugimendu feministak instituzioen aurrean izan behar duen jarrera definitzeko protokolo bat egitea proposatu nahi dugu. Protokolo honek zein baldintzetan eman behar den parte hartzea laburbiltzea izango luke helburu. Eta ondoren protokolo honekin gure dinamika instituzionala garatuko genuke, emakumeen aktibazioa lortzeko tresna ona izan daitekeela kontutan hartzeaz gain.

Hauek dira gure ustez jarri beharko genituzkeen baldintza orokorrak. Gure ponentzia guztiak bezala hausnarketa sakon bat baino, gure helburua aurrera begira zer egin daitekeen eztabaidatzea izan delako. Finean, gure jarrera instituzioetan parte hartzearen aldekoa da, baina ez beti eta ezta edozein baldintzatan ere. Eztabaida guztiona da.

Euskal Herriko bilgune feminista
2008ko Martxo